

Intxaurrenondo Hegoaren inaugurazioa

Hilaren 29an, Intxaurrenondo Hegoa, auzoko ikastetxe publiko berria inauguratuko da. Bertako ikasleen gurasoek luze itxaron behar izan dute ikastetxe berria egin arte. Larunbatean ikasleek, irakasleek eta gurasoek jai politaz gozatzeko aukera izango dute.

Intxaurrenondo Hegoa ikastetxeko eskolak hilaren 10-ean hasi ziren. Hala ere, orain arte ez da inauguraziorik egin. Eta eraikinaren estreinua ospatzeko arrazoirik egon, badago.

"Hiruzpalau urte itxaron behar izan dugu ikastetxe berria egin arte. Azken urteetan, gure seme-alabek auzotik kanpora ikasi behar izan dute, Aitor ikastolan, hain zuzen", jakinarazi digu Koldo Sarriesek, Hautxoak bertako ikasleen gurasoen elkarteko presidentek.

Guztira, bi eta bost urte bitarteko 150 haur ari dira Baratzategi auzoan eraikitako ikastetxean. Guztiak euskara hutsez ari dira. "Oso pozik gaude azpiegitura berriekin.


Ikastetxe polita da", gaineratu digu Sarriesek.

Egitarau ederra

Esan bezala, larunbatean egingo da ikastetxearen inaugurazioa. 11.00etan hasiko da jaia, haurrentzat propio prestatutako entzierroarekin. 12.00-

Ikastetxe berria 150 haur ari dira

etan Kiki, Moko eta Flax pailazioek emanaldia eskainiko dute. Horrez gain, puzgarriak izango dira (11.00etatik-14.00etara eta 16.00etatik 18.00etara). Arratsalde partean, berriaz, 17.00etan txokolate jana egingo da, eta ondoren, 18.00etan Takolo Pirritx eta Porrotx pailazoak ariko dira. Zorionak guztioi.



Ikastaroak emakumeentzat

Intxaurrenondo Berrik, Intxaurrenondoko emakumeen taldeak, hainbat ikastaro antolatu ditu auzoko emakumeentzat. Ikasturtea urrian hasiko da eta besteak beste, pintura, soinketa eta erlajazio tailerrak antolatu dira. Horrez gain, euskara ikasteko aukera izango da. Informazio gehiagorako taldearen egoitzara jo dezakezu (Bustintxulo 15).

Ikastaroetan izena emateko azken egunak

Larrotxene kultur etxeko ikus-entzunezkoen buruzko ikastaroetan izena emateko epea datorren astean amaituko da. Beraz, ikastaroren bat egin nahi izanez gero, argi ibili behar duzu.

euskara
ikastaroak
maila guztiak

ILazKI
EUSKALTEGIA

Konstituzio Plaza, 5 -2.a - Donostia
ilazki@ilazki.euskalnet.net

Euskalduntze alfabetatze

- maila guztiak · H.E. (Perfilak)
- 2, 3 edo 5 ordu egunero
- Alfa, ega, Mintza eta Sakontzen
- Eskaintza bereziak
- egokitutako kurtsoak
gurasoak,
irakasleak (H100, H200, H300)
enpresak -lan mundua-
- informatika gela
- ikaskuntza naturala

Tel. 943 42 49 10